

Maddi Lizarazu Insausti

F maila • **Aipamena**

Maddi Lizarazu Insausti naiz.
2013ko urriaren 6an jaio nintzen eta 8 urte ditut.
Beasaingoa naiz eta Andramendi ikastolan ikasten dut, LH3 mailan.
Gitarra jotzea eta fondoko eskia egitea gustatzen zait.



LEHORRETIK ITSASORA

Behin batean 20 pertsona autobusean zihoazen Oriora. Oriora iritsi zirenerako gaua jo zuen eta bertako hotelean geratu ziren lo egiten. Hurrengo goizean esnatu, gosari xume bat jan eta goizko 05:00k alderako itsasontzira igo ziren. Lasai-lasai joan ziren itsasoan barrena eta eguerdiko 14:00tan euri zaparrada bat hasi zen. Ordu bete geroago euri zaparradarekin batera kazkabarra hasi zen, eta handik ordu laurdenera berriz, elurra eta tximistak hasi ziren zeru beltza argitzen. Orduan, itsasontzian zulo bat zeukatela konturatu ziren eta tripulazioaren artean kezka begi bistakoa zen.

-Zer egingo dugu?

-Ez dakit!

-Goazen salbamendu txalupak hartu eta itsasoratzer! -esan zuen marinel batek.

-Ez, hemen geratzea da ideiarik onena! -esan zuen beste batek.

Azkenean bertan geratzea erabaki zuten. Hor egon ziren ordu betez noraezean, baina azkenean itsasontzia ondoratzen hasi zela konturatu ziren eta beraien salbamendu txalupak hartu eta itsasoan barrena joan ziren. Handik bost ordura, uharte bat ikusi zuten. Bertara gerturatzean saiatsu ziren baina ur korrontea indartsuegia zen aurrera egiteko. Beraien indar guztiarekin korronteari aurre egiten saiatsu ziren eta pixkanaka-pixkanaka gerturatzen ari zirela konturatu ziren. Indarrik gabe geratzen ari zirela bazekiten baina azken ahalegina eginez, lehorrera iritsi ziren. Uhartean piratak aurkitu zituzten. Piratek edabe arraro bat eman zien eta handik bi ordura piraten portaerak hartzen hasi ziren.

Hogei lagunetatik batek ihes egitea lortu zuen, edabea edan ez zuelako eta besteak piratak zirela konturatu zenean, hauen aurka borrokatzen hasi ziren. Borrokaren erdian, piratei mapa bat kendu eta itsaso ondoan zulo bat egiten hasi ziren. Denbora asko pasa zuten eta pixkanaka edabearen eragina pasatzen hasi zenean elkarri begiratu eta galdezka hasi ziren:

- Zer egiten dugu hemen zulatzen?

- Ez dut arrastorik!

- Goazen itsasontzira!

- Ados!

Bat-batean, erloju bat ikusi zuten begi aurrean eta goizeko zortziak zirela jartzen zuen bertan.

Oriora iristen ari ziren, amets bat besterik ez zen izan.